

Ekitaldi desberdinak Haur Liburuaren egunaren inguruan

ZARAUTZ. DV. Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da gaurko egunez, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotze eguna ospatuz. Hau dela eta, Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Aste honetan zehar Pello Añorga eta Miriam Mendoza izan baditugu kontakizunekin, bihar bertan irakurketa txokoa zabalik izango da 17:30-18:30etara Sanz Eneako haur liburutegian. Era berean, asteazkenean berriro ere Pello Añorga izango dugu gure artean, 17:30tan haur liburuaren egunaren inguruan. Ostegunean berriz, apirilak 6, Nestor Elíasen Aromas y huellas liburua aurkeztuko da Sanz Enean.

Adierazi ere, apirilean zehar Cuba, Honduras eta Hegoaldeko herrietara bidaltzeko liburu bilketa egingo dela ELAN-Euskadi eta Hegolan, Gobernu Kanpoko Erakundeen eskutik. Hori dela eta Sanz Enea Liburutegiak bilketa horretan parte hartuko du eta, beraz aipatutako herrietara liburuak bidali nahi dituenak liburutegira ekarri ditzake.